



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

534. zkia.
XIII. urtea
2005eko ekainaren 17a

Xabier Gorostiza

Gorostizatar bizarginen azken belaunaldia

GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN!!

GURE ERRONKA:
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

**GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN**

**Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko istorian
aldaketa nagusia biziko du aurten:
lokal berri bat eraikitzen doa
eta zure laguntza baitezpadakoa du.**

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustenguaren jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64
-Hego Euskal herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330


Gure Lokala

Goizetik arrats... Beti euskaraz
GURE IRRATIA
Zure Irratia 106.6 - 90.5 FM

Alzolako Urak, bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.
Jai zoriontsuak



www.Alzola.com

The advertisement features a large, multi-story building with a white facade and blue accents, identified as the Alzola building. In the foreground, there is a collection of Alzola water products, including several plastic bottles of different sizes and a water dispenser. The background is a snowy, forested landscape. The text is overlaid on the image, with some parts highlighted in a glowing effect.



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Orezta ilun bat du bularrean, eta zehazki nire atzamar txikiaren tamainako distantziara beste bat, argiagoa. Maite dut. Ez dakit, ordea, noiz arte oroituko naizen.

Oreztez, esan nahi dut. Suediako munduak kristalezko kanika bihurtzen ari zaizkit, Imanol, barruan koloretako zurrunbilodun kanika. Hemendik aurrera poltsikoan eraman beharko ditut. Ba omen nator etxera.

Arrainen bi segundoko memoriari barrez ari zen atzo bat. Urtebetean ikusi ez duen lagunaren begiak oroitzen saiatzeko eskatu nion. Isildu egin zen zergatik isildu zen ahaztu ziztaion arte. Egongelako arrain laranja sarkasmoz begiratu zion.

Hego-haizeko egunetan Karlstadek kafe usaina du. Izarek forma ezberdina hartzen dute maitasuna hizkuntza arrotzetan egiten bada. Nire bizikleta grisa da. Erantzi nizkion azken galtzak berdeak. Mesanotxean dudan liburuko 215. orrian bi eltxo daude itsatsita 1992. urtetik.

Baina Suarezzi behin Espainiako presidente izan zela ahaztu omen zaio, Imanol. Eta honek soilik orezta ilun bat du bularrean, eta zehazki nire atzamar txikiaren tamainako distantziara beste bat, argiagoa. Kanikak galtzeko beldur naiz.

«Suediako munduak kristalezko kanika ari zaizkit bihurtzen»

UXUE

«Mundua kanika bat baino ez dela konturatuko zara gauero»

IMANOL

Uxue, kanikak ikusi egiten ditut, baina ezin ditut harrapatu.

Kanika gris batean Suarezzen aldamenean ikusi zaitudala begitandu zait, baina ez zinen zu izango. Beste batean, urdin argi kolorekoa hau, bi eltxo ikusi ditut praka berdeak erantzi eta bizikleta gris batera igotzeko ahaleginean.

Kanika beltz batean, berriz, bi gorputz txuri bata besteari josita ikusi ditudalakoan geratu naiz, baina izarek ez didate ondo ikusten laga. Bata bestearen atzetik datoz, jolaserako gogoarekin dirudite, eta ni beraiei begira, zer esan eta erakutsi nahi didaten asmatu ezinik.

Akaso etxera bueltatzeak ematen duen pozak eraginda jaurti dituzu kanika guztiak airera. Edo, igual, Suediari agur esateak ematen dizun minagatik jausi zaizkizu lurrera denak. Batek daki.

Baina, lasai, ez izan kanikak galtzeko beldurrik. Denborarekin, akaso, kolorea galduko dute, brilloa; litekeena da, baita ere, irudiren bat borratzea; kanikaren bat non dagoen ere ahaztuko zaizu, seguruenik. Baina zureak dira, zuretzat, eta ez dizkizu inork kenduko. Pare bat gorde itzazu almodapean, eta mundua kanika bat baino ez dela konturatuko zara gauero.



LITERATURA, GIDATUTAKO AMETSA BAINO EZ DA



Jorge Luis Borges

Guztiaren gainetik, denok pertsonak gera!

Azken aldian, Elgoibarko herria banatuta dago merkadiloa dela-eta. Niri pertsonalki ez zait bat ere ondo iruditzen udalaren erabakia, baina hori ez da argudiatu nahi dudana gaia.

Askotan, kaletik noanean eta jendearekin merkadiloaren monotoniaz hitz egiten dudanean, jende askok gure alkatea den Mariviren kontrako irainak botatzen ditu erreparorik gabe. Gutun honen bidez gustatuko litzaidake argi uztea, herritarrok Marivi kritikatzeko eskubide guztia daukagula, baina bere esparru profesionalean besterik ez. Lotsagarria da jendeak bere bizitza pribatua ere kritikatzeko, laga dezagun bakean bizitzen. Guztiaren aurretik pertsonak gara!

MARIANA VEGA

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu, joan den larunbatean ospatutako Ikastola Eguna antolatzen lagundu diguten guztiei: Nava inprimategia, Altzolako urak, Bankoa, Goki erreformak, Eroski, Mugape, Jai Alai taberna, Txiriboga taberna, Iriondo taberna, Aterpe

taberna, Lanbroa kafetegia, Anton altzariak, Ane dekorazioa, Azpeleta Elektrizitatea, Arauri Lurrindegia, Lizarralde/Izeta garraioak, Miguel Cabo taxia, Gabilondo inmobiliaria, Armueta harategia, Julio Bueno edarategia, CD Eibar eta Elgoibarko Udala.

IKASTOLA EGUNAREN ANTOLAKUNTZA

Inazio iriondori

Egun baten atxilotu zintuzten
Euskal Herriko seme zintzo
ta hemen utzi zenduzan
zure senide ta guraso.
Onik etorri zaitez
Elgoibarrera Iñaxio.

Baña zu itzultzeko
eguna etorri danian
egun zoragarria
izandu da gure herrian.
Baña bazegok hemen
zer egiña ta
hasi gogotsu lanian.

Ongi etorri zure etxera.

M.J.M. 72409481-P

Gurean Bai-Mertaritzako teknikaria berria



Aurrerantzean Amaia Lasagabaster izango da Gurean Bai-Merkataritza proiektuko teknikaria. Amaia Eibarren jaio zen eta soziologian lizentziatua da. Amaiak Ainara azpeitiarrak lagatako hutsunea beteko du.

Biak ikus ditzakegu erretratuan (Ainara ezkerrean eta Amaia eskuman).

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorobategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmuzaga, Iban Urizar, Kokea KE, Umuzuno, Unai Villena, Aloitx Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Geritu Koop. E. TRADA 4.330 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

? GALDERAK

• **Ermuaranbide kaleko etxeak bota egin behar al dituzte?** Kale honetako bizilagun batek esan digunez, proiekturen bat burutzeko bere kaleko etxeak bota egin behar dituztela entzun du. Udalera jo dugu eta Hirigintzako Departamentutik esan digutenez, momentuz ez dago etxe horiek botatzeko proiekturik, "Arau Subsidiarioetan etxe horiek Ordenantzatik kanpo ageri dira, baina hori ez da gauza berria, betidanik daude horrela. Lur hori gehienbat industrialia da, baina etxebizitza berriak ere egingo dira noizbait. Hori egitea erabakitzen denean, Ermuaranbide kaleko bizilagunek eraikuntza enpresarekin adostu beharko dute beraien egoera".

) TXALOAK

• **Elgoibar Ikastolak DBH 3. mailako guraso eta ikasleak** txalotu nahi ditu, ekainaren 11ean ospatu zen Ikastolaren Egunean egindako lan bikainagitik: "Oso giro onean pasatu genuen eguna denok, eskerrik asko, eta jarraitu horrela".

• **Pilar Ikastetxeko 3, 5 eta 6. mailakoek merienda txiki bat egin zuten beren entrenatzaileen lana eskertzeko.** Eskerrik asko Juan eta Kandi Romerori. Datorren urterako ere, zuen laguntza izatea espero dugu



() KEXAK

• Emakume batek esan digunez, **Gabriel Krutzelegai kalean ez dago zabor kontenedorerik:** "Hiru urte daramatzagu Gabriel Krutzelegi kalean bizitzen, eta oraindik ez digute zabor kontenedorerik jarri. Makina bat aldiz eskatu diogu Udalari, eta ez digute kasurik egiten. Beti aitzakiak jartzen dizkigute, etxeak bukatu arte itxaron behar dela, ez dagoela tokirik... Baina zergak kobratu egiten dizkigute. Ez dago eskubiderik! Egutero zabor poltsa hartu eta kaleraino eraman behar izaten dugu. Ez dut uste beste munduko ezer eskatzen ari garenik".



• Herritar batek esan digunez, **Santa Ana kale hasieran, trenbidera bidean dagoen zebraidea ez du inork errespetatzen:** "Auto gidariek ez dute Santa Ana kale hasieran dagoen zebraidea. Autoa beti zebraidearen gainean aparkatzen dute, eta gidariek ez dute zebraidea ikusten. Umeekin gurutzatu behar dugunontzat arriskutsua da, oso gidari gutxiak gelditzen baitute autoa. Mesedez, jendeak errespetatu ditzala zebraideak, denon onerako izango da-eta!".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- ☺ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☺ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☺ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



URRUZUNOREN Luma

Coração radiante:

Sanba erritmoak dantzatzuz hurbildu zitzaion neska beltzarana Rioko dantzaleku hartan. Aldakak etenda baileuzkan, olatuen mugimenduarekin nahasten zuen gaztetxoaren igarora. Larru leuna zuen, bere eskuez estaltzen baitzion gerri estua. Eskuartearen zuen caipirinha izoztua lapurtu zion begirada iltzatzen ziolarik, gorritz margotutako ezpain mardulen arrastoa edalontzian utziz.

Gau guztia igaro zuten gelditu ere egin barik, gorputzen gertutasunaz jolastuz, musika odolerratzuz, hitz bat bera ere elkartrukatzeko.

Morroxko euskaldun aldrebes eta neskatxa brasildar sentsual batek sortu dezaketen buruketa emaitzgabeena zirudien hark, baina gustura ziren dantzan.

Musika itzali zuten oilararen kukurrukuarekin batera.

"Meu coração está radiante!" xuxurlartzuz ihes egin zuen mamu bat bailitzaan...

Azkenurreko caipirinha eskatu zuen gure mutikoak, bere buruari irri egiten ziolarik.

Sare Gurrutxaga



AINARA GOENAGA

GIPUZKOAKO URAK-EKO
ADMINISTRARIA

Goizeko 9:00etatik 13:00etara egoten da irekita Gipuzkoako Urak enpresaren bulegoa. Honetaz gain, 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzen dute 902 30 22 22 telefonoan, eta www.gipuzkoakour.com helbidean ere, edozein kontsulta egin daiteke.

- **Zein zerbitzu eskaintzen duzue bulego honetan?** Urarekin zerikusia dauzkaten kontu guztiak eramaten ditugu hemendik. Estolderia, etxeetako ura... dena. Jendeak urarekin edozein arazo baldin badauka, hona etor dadila, eta hemendik konponduko zaio.
- **Uraren prezioa garestitu egin al da?** Apur bat garestitu egin da, eta momentuz jaso ditugun kexa guztiak fakturen ingurukoak izan dira. Lehen Udalak minimo bat zeukan ezarrita, eta horra iritsi ez arren, minimoa kobratu egiten zuten. Orain kontsumitzen dena kobratzen dugu, baina tarifa piskat altuagoa da. Ur gutxi kontsumitzen dutenentzako hobe da sistema hau, baina asko kontsumitzen dutenentzat garestiago ateratzen da.
- **Zer da bulego birtuala?** Uraren bulegoa etxean. Gure webgunetik bulego honetan egin daitezkeen tramite berberak egin daitezke: datuak aldatu, fakturak kontsultatu...

komikia



Kokoe 022

[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Basarrixan ala kalia jaixua zera?»

Zela esango dizut, ba. Basarri-etxia zan, baiña bi bizitzakua. Behekua, esan daigun, behian bizi ziranak zaken basarixa, eta gu bizi giñan goixan eta guk ez gendukan basaririkan. Baiña ojo! Bi Belortzagi ziran: Belortzagi goikua eta behekua. Goikua basarrixan zan, baiña Belortzagi behekuan beheko bizitzia ere basarrixan zan. Beti gustau izan jat basarritarrekin ibiltzia. Tontuak ez dira basarritarrak. Nik behin hala esan nion basarritar bati tallarrian: "basarritarrak danak tontuak eta kabroiak zeraztie", eta esan zidan, "kabroiak bai, tontuak ez".

Gure etxia Lan-Bi enpresia daguan pare-parian zagan, Plaza auzuan. Autopistiak bota zaban

etxiori. Belortzagi hori zan oiñ autopistia dan zentrua. Han barrixua zan, oso politta. Autopistiak bota zittun 17 sukalde. Oin zenbat egongo dira? Han hiru taberna eta dendia ezagutu nittun nik. Oso auzo politta zan. Ni naiz hangua, Plaza auzua esan daigun. Elgoibarrera, aurtengo abuztuan 30 urte beteko dira etorri giñala. Autopistiak etxia bota zigunian, ez zagan beste motiborikan.

Basarritarrak eta kaletarrak euki gendun diferentzixa hori: "horri etxauagu kasorik egingo, hori basarritarra dok eta". Nik neuk ez, asko izan naiz basarritarrekin ibiltzekua, baiña kalekuak "pike" hori edo baztarte hori euki zaben pixkat.



[GURE BERBAK]

Animalixak esamoldietan

Aurreko astietan animalixekin egindako konparazio indargarri batzuk izan genduzen hizpide. Gaurkuan ere, harekin jarraituko dogu: animalixak aittatzen diran esamolde batzuk batuko ditugu hamen.

- Azkar eta ondo, usuak hegan.

- Txakurrari ere ez diot opa holako desgrazia bat.

- Nere semia oso ezaguna dok: herrixan ez dago txakurrik haura ezagutuko ez dabanik!

- Txakurra eta katua bezela ibiltzen dira nere seme-alabak.

- Askok edan dau, eta azkenian txahala egin dau kalia bertan horek gaztiorrek.

- Txarri eginda amaittu dau gure mutilkoxxorak, lokatzetan.

- Demasekua dok hire semia, gero, eh! Hori dok ixkua hori!

- Kontuz neska horekin! Ganau ona (edarra) dok, ba!

- Astapatro bat dok gizon hori.

- A ze paria, karakola eta baria.

- Ez hadi hain potrozomixa izan, motelli!

- Flaku-flakua da. Bai ba, txitiak beste ez dau jaten eta!

- Nagusi askoren astua, gosiak hill!

- Jan-txakur asko dago basari horretan: jande asko, baiña gubxi laguntzeko prest.

- Txakurra bezela bialtzen juen basarritarra perixa egunetan.

Jesus Mari Makazaga

I. URTEURRENA

2004ko ekainaren 14an, 82 urte zituela hil zen

Luis Jauregui Ollokiegiren

oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, ekainak 19, eguerdiko 12:30ean Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



XABIER GOROSTIZA BIZARGINA

«Bizartegiek konfesatokiak ematen zuten lehen, askok barruak husten zituzten»

Xabier ileapaindegiko Xabier Gorostizak (65 urte) 52 urte egin ditu lanbidean. Bere anaia Mikelek irakatsi zion ofizioa 13 urte zituenean eta ordutik makina bat bezerori moztu dio ilea eta bizarra. Aurten jubilatzeko asmoa zuela azaldu digu, baina beste urtebetez jarraitzea erabaki du. Gure iragan hurbileko ofizio bitxia izan da bizargiarena.

👤 Galtzen ari den ofizioa al da bizargina?

Bai. Orain 2 bizartegi daude herrian, baina garairik onenean 6 egon ziren eta 20 bizargin izango ginen denera.

👤 Ilea ala bizarra mozten zenuten lan gehiago?

Biak antzera. Hasi nintzen garaietan gizonzkoek atxurrekin mozten zuten bizarra etxean, baina kalitate txarreko erramintak ziren. Langileak lanetik atera eta zuzenean etortzen ziren astebeteko bizarra kentzera. Aurpegia garbitu eta bizarra moztu ostean, barregarria zen nola geratzen ziren. Tailerreko hauts eta zikinkeraren erruz begi inguruan anteojoak zituztela zirudien eta bizarra egon zeneko zatia, berriz, garbi-garbi.

👤 Zer ezberdintasun dago bizarra atxurrekin edo labanarekin moztu?

Krema leungarria botatzen genuen larruzko uhal batean eta bizargiaren labana bertan igurtzi ostean leun-leun ebakitzen zuen bizarra. Arriskutsuagoa ere bada, baina erabiltzen jakinez gero, goxo-goxo lagatzen du aurpegia.

👤 Zein ziren garaiko ile mozketa ohikoenak?

Ile mozketa klasikoena Frantziatik iritsi zen gerra aurretik. "A lo Parisien" edo "a cepillo" deitzen genion. Buruaren goialdea lau-lau lagatzen zuen mozketak honek.

👤 Zenbatean behin joaten zen jendea bizartegira?

Ilea moztera hilabete pasa baino lehen itzultzen ziren eta asko 15 egunean behin etortzen ziren, lepoaldea konpontzera bazen ere. Lanean hasi nintzenean 2 pezeta balio zuen ilea mozteak eta 50 zentimo bizarra mozteak.

👤 Nolako bezeroak zenituen?

Oso jatorrak. Akorduan daukat 8 edo 9 lagun bizarra mozteko zain egoten zirela tertulian, prisarik gabe. Ferixa tokatzen zenean baserritarrak jaisten ziren herrira eta egun osoz lan egin behar izaten genuen zapatuetan, 8:00etatik 22:00ak arte. Konfidantza osoz kontatzen zizkieten elkari mila kontu. Orain guretat gordetzen ditugu gure gauzak. Lehen bizartegixak konfesatokia ematen zuten, barruak husten zituzten askok. Hori dana galdu egin da.

👤 Inoiz pentsatu al duzu emakumeekin lan egitea?

Bai. Edade pixkat hartu nuenean hasi ziren gizonak andreri ilea moztzen, kapitalean lehenengo eta herietan gero. Bartzelonako ileapaindegi batetik deitu zidaten ikastera joateko, baina ez nintzen joan, gizonekin lan nahikoa neukan. Gainera, tratua edo harremana ezberdina da.

👤 Haurrak ei dira ileapaintzaileen amesgaiztoa?

Bai. Makinia ikusi orduko beldurtzen ziren. Atetik sartu eta bata zuria ikuste an medikuak ginen eta pentsatzen zuten.



GOROSTIZATARREN DINASTIA

Eulogio Gorostiza izan zen bizarginen ofizioa ikasi zuen lehen Gorostizatarra. Marcial Oria ileapaintzaile errioxarrak irakatsitakoarekin bizartegixa ireki zuen 1923. urtean Errosario kalean. Eulogiok bere anaia Lorenzo eta Guillermo hartu zituen laguntzaile. Eulogio gazterik hil eta anaiek jarraitu zuten negozioarekin. Lorenzok Errosario kalean, eta San Bartolome kalean Guillermo.

Mundu guztiak bizarra bizartegietan moztzen zuen garaia ziren. Gazteak astero joaten ziren, baina feria egunetan baserriar edadetuak 15-20 eguneko bizarrarekin joaten ziren. Labanarekin hasi aurretik makinilaz zerora laga behar izaten zuten bizarra. Garaiko



egunkari batean Lorenzori egindako elkarrizketa batetik jakin ahal izan dugunez, "gustu bat zen ileapaindegian lan egin eta egotea. Jendeari ez zitzaion axola ordu bat edo bi ordu bere txandaren zain egotea, tertulia handiak antolatzen baitziren". Lorenzok emaztea

eta sei seme aurrera ateratzeko alpargatak egiten zituen astia zuenean bizartegian bertan zuen txoko batean. Astelehen arratsaldeetan bakarrik hartzen zuten jai eta eskualdeko bizarginek elkartu eta merienda antolatzen zuten.

Bestalde, lanbidearen inguruko okerreko uste bat argitzen du. "Bata zuriak janzen genituelako, agian, lanbide garbitzat hartzen zen gurea, baina ez zen lanbiderik osasungarriena. Tuberkulosi eta beste gaixotasun kutsakor asko zeuden eta gaixo askoren hatsarekin harremanetan jartzen ginen. Honez gain, zorri asko zegoen. Horregatik beti esan izan da bizarginaren bizimodua laburra dela".

Honez gain, makinillak ez ziren elektrikoak eta haurra mugitzen bazen tirakada egiten zenion eta ilea libratzea ez zen batere erraza.

👉 Bitxikeriak ere izango dituzu.

Altzolako bainuetxera kanpoko jende asko etortzen zen garai batean. Hauetako bezero batek aipatu zidanez, Valentzian kaletik zihoala gizon batengana hurbildu eta Elgoibarkoa al zen galdetu zion. Besteak baietz erantzun. 'Nolatan antzeman didazu?' harriturik, eta harek: 'ile mozketa hori Xabierren ileapaindegian egin dizute' erantzun. Ez dakit txantxetan esan zuen, ez eta ongi edo gaizki moztuta zegoelako, baina antzeman zion.

👉 Ileapaintzaile onak egon al dira Elgoibarren?

Profesional oso onak egon izan dira beti. Kanpotarrak etortzen zirenean oso gustura geratzen ziren. Labanarekin ilea mozteko teknikaren ikastaro bat egin genuen Donostian eta aintzindarietakoak izan ginen Euskadin. Oraindik ere asko egiten dugu eta lan oso polita da. Ezberdina da guraizekin edo labanarekin moztu. Labanarekin ilea moztu beharrean gastatu egiten da, ilerako lima modukoa litzateke.

RUPERTO LARRAÑAGAREN ILEAPAINDEGIA



Enrike Larrañagak istorio bitxia ekarri digu, bere aita Ruperto Larrañaga ileapaintzailearen istorioa. Elosua auzoko Gomezkorta baserrian jaioa, gizon aurreratua izan zen bere garairako. Joan zen mendeko 20ko hamarkadan Bartzelonara joan zen estatuko akademiarik onenean ilea apaintzeko estiloa hobetzera. Itzuleran Maxima Elkorobarrutiarekin ezkondu eta ileapaindegia zabaldu zuten Eibarren 1930. urtean. Ileapaindegi modernoa zen: 10 laguntzaile (7 emakumeentzako eta 3 gizonezkoentzako), Eibarko "Acha

y Bastera" lantegiko aulki amerikarrak, eta orrazkera modernoenak eskaintzen zituzten. Hau guztia gerrarekin amaitu zen. Lanean ari zirela, ustekabean, harrapatu zituen bonbardaketak goiz batez. Bizi ziren etxea eta ileapaindegia suntsitu zituzten bonbek. Senar-emazteak Elgoibarko Arrillaga medikuaren klinikan bukatu zuen zauriturik, oraindik laneko bata zuriak soinean zituztela. Rupertok hanka bat galdu zuen, baina aurrera egin zuen bizitzan. Oraindik ere badira bere ileapaindegia eta ilea mozteko trebezia gogoratzen dutenak.

[PROTAGONISTAK]



Jesus**Ansola**

Jesus Ansola (Mauxitxa) elgoibartarrak Bilboko III. Idiazabal Gazta Lehiaketa irabazi du. Joan zen igandean, ekainaren 12an, ospatu zen lehiaketa hau, Bilboko Gaztaren Astearen baitan. Guztira Euskal Herri osoko 21 lehiakide izan ziren, eta Mauxitxa baserriko gazta izan zen epaimahaikideei gehien gustatu zitzaiena. Elgoibartarren artean aski ezaguna da Mauxitxako gazta, eta dirudienez, gure herritik kanpora ere estimazio handia dauka, izan ere, joan zen astean Intxaurrendoko Aste Gastronomikoan ere, Mauxitxako gazta izan baitzen irabazlea.

[NOTIZIA]

Udalak "Elgoibar" aldizkaria kaleratu du eta doan banatuko da etxe guztietan

Elgoibarko Udalak "Elgoibar" aldizkariaren lehen alea argitaratu eta banatu du. "14 + 1" komunikazio agentziak egindako lana da, eta Izartu programaren bidez lortutako dirulaguntzei esker, Elgoibarko Udalak abian jarri dituen proiektuen berri emango du.

4,3 milioi euro

Eusko Jaurlaritzaren Izartu programak 4,3 milioi euroko dirulaguntza eman dio Elgoibarri. Diru hau herriko irisgarritasun eta mugikortasun proiektuak eta bizi kalitatea hobetzeko erabiliko da. Emandako dirulaguntzei esker, herriko arduradunek udalerriaren irudia aldatuko dute datozen lau urteotan, eta egungo ekipamenduak berrituko dira.



Izartu programa Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak sustatzen du, eta udalei laguntzen die hondatutako inguruneak berritzen.

[ZENBAKIA]

700

700 elgoibartarrek egin dute dagoeneko EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena). Einbiouk mahaia jarriko du bihar, hilak 18, zapatua, Plaza Handian 11:00etatik 13:30era. 3 argazki, erolda agiria eta 15 euro behar dira EHNA egiteko. Urte bukaerarako 1000ra iristea nahi dute.

asteko [ARGAZKIA]



Ekaina ere badoa aurrera eta dagoeneko, herriko umeak hasi dira San Juan suak prestatzen. Joan zen astean aurkitu genituen kalez kale kartoizko kaxak, aldizkariak eta paper zaharrak biltzen. Ez daukate lan makala, baina ilusioz eginiko lanak ez dauka nekerik. Hori bai, bildutako guztia gordetzeko tokia bilatzea ez da erraza izango. Ekainaren 24an da San Juan Eguna, urteko gaurik motzena, gau majikoa askorentzat. Gure herrian bezperan piztuko dira suak, zakarrak erre eta su gainean salto egiteko.

Udala Batzokia balitz bezala jokatzeko duela leporatu dio PSE-EEK EAJri



Elgoibarko PSE-EEK prentsaurrekoa eskaini zuen asteartean, hilaren 14an, Udal Gobernuaren bi urteko jardunaren balorazioa egiteko, eta Ovidio Campellok esan zuenez "Udal Gobernuak udaletxea Batzokia balitz bezala jokatzeko du, herriaren aurrerapausurako oztopo bat da, eta bere gehiengo absolutua oposizioa zapaldu eta ezabatzeko erabiltzen du".

Hiru gai nagusi

Prentsaurrekoan hiru gai nagusi aipatu zituen Campellok: Merkadilloaren arazoa izan zen lehenengo gaia, eta oso kritikoa

azaldu zen Udal Gobernuaren jarrerarekin: "Gezurak eta deskalkifikazioak erabili dituzte merkatarien eta Elgoibar Bizirik Plataformako kideen kontra. Gainera oraindik ez dakigu leku aldaketaren benetako arrazoia zein den". Bigarren gaia Madalako errotonda izan zen. Honen gaineko informazioa eskatu dute Diputaziora, eta herritarren kezak kontuan izanik, arazo honi irtenbidea ematen saiatuko dira. Azkenik, Sigmako errausketa-labeak sortzen dituen usain txarren gainean aritu zen Campello. Informazioa eskatuko dute, eta arazoa konpontzen saiatuko dira.

[MOTZ-MOTZIAN]

Autoenplegu ikastaroan 10 enpresa berri

Debegesak iazko ikasturtean antolatutako autoenplegu ikastaroan parte hartu zuten emakumeek hamar enpresa berri sortu dituzte Debabarrena Eskuladean. Ikastaro hau negozio-idea bat duten emakumeei zuzendua dago. Iaz 30 emakumek hartu zuten parte.

Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan bi lagunentzako bi afari zozketatu dituzte Merkatu Plazako merkatariek, eta irabazleak Ana Arriola eta Junkal Salegi izan dira. Bi hauek, beraiek aukeratzen duten bikotearekin Ibai Ondo jatetxean afaltzeko aukera izango dute. Datoren hilean, 60 euroko lau txeketa zozketatuko dira.



1955ean jaiotakoekin kinto ospakizuna

Aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek, datorren ekainaren 25ean egingo dute ospakizuna. Norbait gonbidapenik gabe gelditu bada, eta parte hartzea nahi bada, deitu dezala lehenbailehen 627 760 248 (Manu) telefonora.

Udal Euskaltegiaren udako ikastaroak

Udal Euskaltegiak euskara ikasle guztiei gogorarazi nahi die udako ikastaroetan izena emateko epea oraindik irekita dagoela. Klaseak uzteilean eta irailean izango dira. Interesatuek 943742731 telefonora deitu dezakete.

14 emakume elgoibartar Peña Main mendia gailurrean



Elgoibarko 14 emakume Picos de Europa mendikatean dagoen Peña Main mendian izan dira. Emakume talde honek 18 urte daramatza elkarrekin mendira joaten. Urtero hartzen dute astebururen bat mendira joateko, eta aurtengoan Peña Main mendia aukeratu dute. Asturiaseko Bulnes herrian dago mendi hau, eta 1655 metro ditu. Talde guztiak lortu zuten gailurreraino iristea. Eguraldi bikaina egin zien. Esan digutenez, paisaia liluragarriak ikusi zituzten, eta mendi gailurretik zegoen ikusmira zoragarria zen.

Inkesta

G8 taldeak osorik ezabatuko du 18 herrialde pobreren kanpo zorra.

Zer egin beharko lukete herrialde aberatsek herrialde pobreen egoera hobetzeko?

ANA RODRIGUEZ
Erizain-laguntzailea
24 urte



“Janaria eta medikamentuak bidali, ikastetxeak zabaldu eta gauza berriak erakutsi. Dirua bidaltzea arriskutsua da, auskalo norengana iristen den!”

JAVIER SANCHEZ
Ostalaritza teknikaria
36 urte



“Amagintza eta gerrateetan hainbeste diru gastatu beharrean, laguntza ekonomiko gehiago eman. Dirua hobeto banatu beharko lukete herrialde aberatsek.”

MIKEL ANAKABE
Ikaslea
13 urte



“Herrialde horietan jende gehiena gosez edo gaixorik hiltzen denez, janaria eta medikamentuak bidaliko nituzke. Ikastolatik bidaltzen diegu erropak eta janaria.”

ANA CANCA
Irakaslea
31 urte



“Herrialdea garatzen irakatsi: lurra lantzen, ikastetxeak sortu... Dirudiena baino errazagoa da. Janaria eta dirua ematea, gaurko ogia, baina biharko gosea da.”

[BAI ala EZ?]

Gure inguruko hondartzen egoera ona dela uste al duzu?

BAI %30

“Egoera ona dutela uste dut. Are gehiago, benetan politikak direla esango nuke baina, hori bai, arazoa aparkatzea izaten da. Leku gehienetan lanak izaten dira toki topatzeko!”

EZ %70

“Ez. Itsasoan bainatu ondoren dutzatzea komeni dela ohartarazten dute askotan hondartzainek altabozetatik. Hori ez da seinale ona.”


Datorren asterako.... **Ekainaren 24an San Juan suak pizten dira herriko txoko askotan. Eskatu al duzu inoiz desiorik San Juan suaren gainetik salto egin aurretik?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

MUNDU BAT HAMAIKA LEKU



18 bidaiak

txina
karibe
andaluzia
mallorca
kantabria

族
遊
中
國

Ekainaren 19tik aurrera



Kupoi guztiak bilduz gero,
autorako eguzkitakoa
jasoko duzu opari.



berria

Laguntzailea:

 **EROSKI** / bidaiak
merezi duzu

Euskaldunok behar dugun

berria

Sellako jaitsiera In Leikerekin

Mendaroko In Leike Euskara Taldeak Asturiaseko Sella ibaia piraguan jaisteko aukera eskaintzen du. Ekainaren 24tik 26ra bitartean, Asturiaseko Ribadesella herrira egingo dute irteera. Ikasle eta langabetuek 42 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 48 euro. Prezioaren bamean bi gau, bi gosari, larunbateko bazkaria eta Sella ibaiko jaitsiera sartzen dira. Bidaia, kotxeetan egingo da. Interesatuak In Keikek Kutxan duen kontu korrontean sartu beharko dute dirua. Plazak mugatuak dira, eta izena emateko ordena errespetatuko da. Datorren ekainaren 22an bilera informatiboa egingo da Azpilgoetako Abade Etxean.

Bukatu da Goñati frontoiko Pilota Jaialdia

Euskal Jolas Debako Pilota Elkarteak, Mendaroko Udalaren laguntzaz antolatutako Pilota Jaialdiko Mendaroko partidak joan zen ostiralean, hilaren 10ean, bukatu ziren. Banakako 4 eta erdiko kategorian hiru j norgehiagoka jokatu ziren lehengo astean. Hauek dira emaitzak: Iribar 22-Aiesta 14/ Elejalde 18-Aldape 22/ Telleria 15-Insauti 22. Galtzaileak txapelketatik kanpo geratu dira. Orain zortzi talde gelditzen dira. Gainontzeko partiduak Itziarren jokatu dira, eta finala uztailaren 15ean izango da. Jaialdi honetan Euskal Herri guztiko 200 ume inguruk hartu dute parte.

Santana jaietarako txosna

Uztailaren 25ean hasiko dira Santana jaiak. Dagoeneko, hilabete inguru gelditzen da, eta Mendaroko Udala hasi da antolaketa lanetan. Beraz, Mendaroko 2005eko Santana jaietan txosnaren bat jartzeko asmoa duten elkarteek, datorren ekainaren 30a baino lehen egin beharko dute eskaria udaletxean.

MEÑDEBALDE ALDIZKARIA

Mendaroko berriak hilabetero buzoian

Mendaroko Udalak Mendebalde aldizkaria aterata du. Dagoeneko bost ale kaleratu dituzte eta bertan Udalaren proiektuen berri ematen da, besteak beste. Izena aukeratzeko lehiaketa egin zuten, eta J.M. Unanuek proposatutako Mendebalde izan zen irabazlea. "Men" erroa, Mendaro hitzaren berdina da, eta "Debalde" atzikiak Deba Bailarari egiten dio erreferentzia. Gainera, aldizkaria debalde banatzen da. Etxean jasotzeko,



erregistroa@mendaro.net helbidean edo www.mendaro.net webgunean ere kontsultatu daiteke.

Arregiko gurutze berria bedeinkatu zuten



Joan zen igandean, hilaren 12an, Arregiko gurutze berria bedeinkatu zuten Azpilgoeta auzoan. Ondoren, meza izan zen. Toki honetan, lehen ere bazegoen gurutzea, baina obrak egiterakoan puskatu egin zen. Udalaren enkarguz egin da gurutze berria. Ekitaldian zehar, Juan José Goikoetxea historialari mendarorarrak gurutze honi buruzko informazio interesgarria eskaini zuen. Dirudienez, gurutze zaharrak 100 urte baino gehiago zituen.



Goñati frontoia dantzan

Triska Dantza taldeak, Goñati frontoia dantzan ipini zuen joan zen larunbat gauetan. Mendaro, Deba eta Eibarko ika 110 ikasle inguruk hartu zuten parte jaialdi honetan. 4 urtetik 28 urtera bitarteko dantzariak, beraien abileziak erakutsi zituzten. Jaialdian, autore eta estilo desberdinetako musika piezak dantzatu zituzten: garaikidea, klasikoa, jazz-a... giro bikaina izan zen.





LUIS MIGUEL SOUSA

Karate irakaslea

«Borrokarik ez egiteko nola borrokatu irakasten du karateak»

Luis Miguel Sousa 34 urteko debarra da baina gaur egun Mendaron bizi da eta bertan karate klaseak ematen ditu. Ia 20 urte dira karatea egiten hasi zela eta, aitortu digunez, zaletasuna ez ezik, bizitzeko modua ere bada, ekialdeko filosofiak erabat konbentzitua dauka-eta.

• Gerriko beltza daukazu, ezta?

Bai, gerriko beltza eta lehenengo Dan-a. Gaur egun oso maila altua dago eta ez da batere erraza dan-ak lortzea.

• Iazko azarotik zabilza Mendaron karatea irakasten.

Hori da. 5-7 urte bitarteko 10 ikasle ditut eta nagusien mailan pare bat momentuz. Mendaro herri txikia da eta alde horretatik iruditzen zait kopuru polita dela. Zentzu horretan, eskerrak eman nahi dizkiot Mendaroko Udalarari eman didan aukera eta erraztasunengatik

• Neskak ere animatzen al diras?

Ezezagutza handia dago eta baita aurreiritziak ere. Askok biolentziarekin lotzen dituzte arte martzialak eta, automatikoki, mutilekin. Hala ere, haurren mailan 3 neska ditut eta helduetan biak dira emakumezkoak. Nik uste azken boladan defentsa pertsonalaren kontuak ere izan duela eraginik eta neskak gehiago animatzen direla.

• Askok judoa eta karatea nahasten egiten dituzte.

Garbi dago biak direla arte martzialak eta badute antzekotasunik. Hala ere, karatean kontaktua askoz txikiagoa da. Ahal dela, kontakturik gabeko borroka izaten da. Judoan, aldiz, konbateetan kontrakoa inobilizatu egin behar duzu. Karatean gehiago da nola erabiltzen duzun teknika eta katak edo

mugimenduak nola erabiltzen dituzun. Karatean normalean gorputza babestuta joaten da; belauinak, eskuak, umeek baita kaskoa ere...

• Zer da hurrek ikasten dutena?

Dena lantzen da: egoera fisikoa kirolaren bidez, arte martzialen disziplina eta baita defentsa pertsonala ere. Eta, oso garrantzitsua da besteekiko errespetua eta edukazioa ere irakastea. Arte martzialean oso inportanteak dira agurrak. Arerioa beti agurtzen da.

• Zu konbateetan ibiltzen al zara?

Ez, ez naiz sekula zalea izan. Ni batez ere filosofiak erakartzen nau eta hori nire bizitzan aplikatzen dut. Kontraesana dirudien arren, karateak borrokarik ez egiteko nola borrokatu irakasten dizu. Hau da, eguneroko bizitzan ditudan arazoei ere ahal dela irtenbide baketsua eta lasaia topatzen saiatzen naiz. Karatean konbatea inoiz ez da hasten erasoarekin.

• Zer esan nahi du Karate hitzak?

“Kara” hitzak hutsunea esan nahi du eta “Te” hitzak eskua. Karate hitza ia beti doa “Do” hitzarekin eta “Do” bidea da. Judo, esaterako, jende arteko bidea da eta Karate Do, berriz, hutsik dagoen eskuaren bidea. Bizitzan dauden bide ezberdinen aurrean nola jokatu behar dugun erakusten du. Azken batean, gorputzaren eta buruaren arteko oreka lantzen da.



«Bizitzan nola jokatu behar duzun irakatsi dit karateak»



GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

SELEKTIBITATEA:



Ekainaren 8tik 10era bitartean 2.000 gipuzkoarrek selektibitate azterketa egin dute, horien artean, elgoibarko ikasleak ere izan dira. Unibertsitaterako giltza da selektibitatea, baina beharrezkoa al da? Urteak daramatzagu azterketa hau kendu egingo dutela entzuten, baina urteak joan eta urteak etorri, oraindik berdin mantentzen da. Gaurkoan selektibitatea egin berri duten hiru gazterekin hitz egin dugu. Leire Apellaniz, Oihane Garate eta Juanan Martin. Oraindik ez dakite emaitza, eta gehienek gainditzen duten arren, urduri daude. Hori bai, burua dagoeneko, ikasbidaian daukate.

Zer moduz joan da selektibitatea?

Juanan: Azterketa batzuk uste nuena baino errazagoak izan dira, baina beste batzuk zailagoak. Zientifiko-teknologiko alorrekoentzat fisikako azterketa zaila izan zen. Teknologiako azterketa ez zen zaila, baina urtean zehar ez dugu ganorazko ezer egin. Azterketa hartu nuenean ez nekien nondik hasi.

Oihane: Nire ustez ere fisika oso zaila izan zen, baina matematika oso erraza. Matematika eta fisikan selektibitateko azterketak egin genituen, eta hobeto aterata zaizkigu. Teknologian ez genuen horrelakorik egin, ariketa solteak bakarrik.

Leire: Ni Bio-Osasun alorrekoa naiz eta ez nuen fisikako azterketarik eduki, kimika egin nuen, eta hau nahiko zaila iruditu zitzaidan.

Zer moduz prestatuta ikusi duzue zuen burua?

O.: Gaizki, beste ikastetxe batzuetako ikasleak askoz presio gehiago zeukaten. Gu azterketa batetik bestera abesten eta ondo pasatzen ari ginen bitartean, besteak ikasten eta kontzentratuta ikusten genituen.

J.: Gaizki. Ez gaituzte gehiegi presionatu. Azterketa bat amaitu eta kanpora ateratzen ginen, eta beste ikasleak isil-isilik apunteak

errepasatzen ikusten genituen.

Nolako emaitzak espero dituzue?

O.: %90ak gainditzen duela esaten dute, baina...

L.: Esperantza gutxi daukat. Gutxi suspentitzen du, baina norbait egon behar da %10 horretan!

J.: Hobe da esperantza handirik ez edukitzea, eta suspentitu egingo duzula pentsatzea, horrela, gainditzen baduzu mordera pozten zara, eta aprobatzeko esperantza handia baldin badaukazu, suspentsoa jasotzea oso gogorra da.

Zenbat azterketa egin dituzue?

O.: 7 azterketa 3 egunetan. Asteazken arratsaldean izan genituen lehenengo azterketak. Etxera berandu iritsi ginen, eta ez geneukan hurrengo egunekoak prestatzeko denborarik.

J.: Txarrenak lehenengo bi egunak izan ziren, ostiraleko azterketak testuak irakurri eta erantzutea besterik ez zen.

L.: Lehen, 2 egunetan egiten zen selektibitatea. Uste dut hobe dela 3 egunetan egitea. Ondo sakabanatuta egon dira, osteguna bukatu zenean oporretan nengoela uste nuen, ostiralekoak euskara eta ingelesa ziren, ez zen gehiegi ikasi behar.

Nola bizi zenituzten aurreko egunak?

L.: Nik oso lasai hartu dut. Nire lehenengo helburua Batxilergoa gainditzea zen. Selektibitatea egiteko aukera neukanez, aurkeztu egin nintzen, baina inolako presiorik gabe. Baina azterketa egitera iritsi ginenean, tentsioa nabaritzen zen jendearengan.

O.: Nik ez dut nota altuegia behar, beraz, lasai nengoen. Modulo bat edo unibertsitate pribatura joango naizenez, nota mediak ez du garrantziarik, selektibitatea gainditzea bakarrik eskatzen didate.

“%90ak gainditzen du selektibitatea baina...”

OIHANE

BARREN

UNIBERTSITATERAKO GILTZA

Baina batzuk nota altua behar dute nahi duten karreran sartzeko, eta horiek oso urduri zeuden.

Orain zer ikasteko asmoa daukazu?

O.: Dekorazio modulo bat, edo Arkitektura Teknikoa. Oraindik ez dut erabaki.

L.: Haur Hezkuntzatik joko dut seguruenik. Unibertsitatera joatea gustatuko litzaidake, baina ezin badut, modulo bat egingo dut.

J.: Topografia edo Obra Publikoak. Donostia eta Gasteiz ditut aukeran. Gasteizen gehiegi desmadratuko naizela iruditzen zait, ostiraletan ez dago klaserik, bidea luzeagoa da... seguruenek Donostia aukeratuko dut.

Asko aldatuko al zaizue bizimodua?

J.: Bai, eta horrek kezkatzen nau. Datorren urtean ez naiz lagunekin egongo, familiarik aldentuta, jende

berria ezagutu... Egunero etxera etortzeko asmoa dut, baina aldaketa izango da.

O.: Ni Iruñara banoa han geldituko naiz, baina oraindik ez dakit. Jende berria ezagutzeak kezkatzen nau apur bat, beharbada bakarrik sentitu zaitezke.

L.: Badaukat aldaketarako gogoia. Elgoibarko monotoniakin aspertuta nago, eta badaukat jende berria ezagutzeko gogoia, hemengo lagunak galdu gabe.

“Selektibitateak ez du balio dakizuna neurtzeko”

JUANAN

Selektibitatea beharrezkoa al da?

O.: Beste modu batean planteatu beharko litzateke, hainbeste azterketa 3 egunetan egiteak ez du ezertarako balio, eta gainera batezbesteko nota jaisten du. Bi urtetako lana ezin da horrela neurtu.

L.: Selektibitatearen funtsa ikastetxe guztiak globalizatzea da, unibertsitatera joateko daukagun oinarria zein den jakitea. Hala ere, ez dut uste beharrezkoa denik.

J.: Ez du balio dakizuna neurtzeko. Neska bat gaixorik jarri zen selektibitate egunetan, eta azterketak ez zaizkio ondo atera. Bi urteko lan guztia alperrik! Batxilergoko notarekin nahikoa izan beharko litzateke.

Orain, saririk onena: ikasbidaia.

O.: Bai, ikasbidaia, eta ia 4 hilabeteko oporrak! Juanan eta ni Tunezera goaz.

L.: Ni Holandara noa. Kriston gogoia daukat, deskonektatu eta lasai egoteko. Bueltan jakingo dugu ze ikasteko aukera dugun, baina orain ez dut horretan pentsatu nahi.

“Azterketaren funtsa ikastetxe guztiak globalizatzea da”

LEIRE



LUTXI ARREGI ONGARRI ZINE KLUBEKO KIDEA

«Made in Hollywood ez den zinea eskaintzen du Ongarri Zine Klubak»



Ongarri Zine Klubeko kidea da Luchi Arregi elgoibartarra. 'Bestelako zinema' edo zine komertzialetik aldentzen den filmeak eskaintzen ditu Ongarrik. Horrela, 1999tik 2005era doan tartean 173 filma proiektatu dituzte Herriko Antzokian eta 15.000 ikusle pasa dira bertatik.

🚩 **Nolako izan da aurtengo denboraldia zenbakitan?**

Urritik ekainera bitartean 25 filma eskaini ditugu eta batez beste 45 lagun joan dira Zine Klubeko emanaldietara. Thomas McCarthy estatubatuararen "Vias Cruzadas (The Station Agent)" filmak izan zuen sarrerarik onena, 90 ikusle joan baitziren. Zhang Yimou txinarraren "La casa de las dagas voladoras" pelikula ere ikusle arrakasta izan zuen, 80 lagunekin.

🚩 **Herri zinezalea al da Elgoibar?**

Zinea orokorrean beherantza doala iruditzen zait. Bergaran esaterako, zine aretorik gabe geratu dira eta Arrasaten ere kolokan dago. Zinema areto handietara joaten da jendea asteburuetan eta herrietako zineek ez dute dirurik ematen.

🚩 **Nola aukeraten dituzue filmak?**

Normalean zikloak antolatzen ditugu, hau da, elkarrekin nolabaiteko lotura duten filmak aukeratzeko saiatzen gara. Lehenik zerrenda handi bat osatzen dugu eta aukeraketa selektiboagoa egin ostean, zinema-banatzailleekin harremanetan

jartzen gara. Ekoiztetxeenak dira filmak, baina banatzaileen lana da zineak hornitzea. Pelikulen prezioak (batezbeste 450-500 euro artean bakoitzak) finkoak izaten dira, baina fetxeekin egoten da arazo gehien. Areto handi eta garrantzitsuenek dute lehentasuna eta guk ahal dugunean ekartzen ditugu. Pelikula batzuk kopia gutxi izaten dituzte eta are zailagoak dira.

«Zine areto handiek dute filmak aukeratzeko lehentasuna»

🚩 **Nola jakiten duzue zer pelikula dauden merkatuan?**

Aldizkari espezializatuetan irakurri, filmeak ikusiz, zinemaldiak adi jarraituz, e.a. Iñaki Agirre daukagu taldean eta

zinemaren entziklopedia modukoa da bera. Zuzendari batzuren jarraipena egiten du eta hurrengo filma noiz aterako duten jakitun egoten da.

🚩 **Zer ezaugarri eduki behar ditu filma batek Zine Klubean eman ahal izateko?**

Premisa moduan, zine komertzialean ikusi ahal ezingo genituzkeen pelikulak dira: autore zinema, zuzendari berrien lanak, dokumentalak, gai bereziak lantzen dituztenak, 'Dogma' moduko joera berriak, 'made in Hollywood' ez direnak, alegia.

🚩 **Ongarrik ikusle goi fidela al du?**

Baditugu ikusle fidel batzuk eta gainerakoak filmearen arabera joaten dira. Denetarikoa izaten da, adin guztietakoa.

🚩 **Zer zine mota duzu gustuko?**

Hego Amerikan egiten den zinea asko gustatzen zait: Argentinakoa, Brasilekoa, e.a. "Maria Llana eres de gracia", adibidez, Kolonbiatik etorri beritan ikusi nuen eta are egiazkoagoa iruditu zitzaidan. "La casa de las dagas voladoras" ere txundigarria iruditu zitzaidan.

EKAINAK 19

Domekan, Sanmigeldarren eguna

Aiasiako (San Migel) auzotarrek Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute ekainaren 19an, domekan. Urtero auzotarren bat omentzen dute, baina aurtengo ospakizunak Murkaikupe bilgunea inauguratzeko aprobetxatuko dituzte. Duela gutxi berriitu zuten Kalamua Elkarre gastronomikoa eta bilgunea, berriz, izen bera daraman frontoiaren frontisaren atzekaldean eraiki dute. Egitarauari dagokionez, Meza Nagusiak emango die hasiera Sanmigeldarren Egunerako prestatutako ekintzei. Ondoren, auzotarren arteko pilota partidak jokatu dira eta Gardokik alaitutako dantzaldia izango da bazkalostean.



Gatibuko Ales Sardui "Idazmakinak"-eko sari banaketan

"Idazmakinak" Literatur Lehiaketako sari banaketa ekainaren 21ean, izango da Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko GAZT taldeak antolatzen duen lehiaketak gonbidatu berezia izango du sariak banatzeko, Alex Sardui, "Gatibu" taldeko abeslaria. Elkarriketa txiki bat egingo zaio Alexi eta gero banatuko ditu sariak.

San Bartolometako jaietako programaren azal lehiaketa

Udaleko Kultura Batzordeak 2005eko San Bartolome jai egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako edonork parte har dezake eta teknika librea izango da (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskari gogorrean aurkeztu beharko dira eta ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea, diapositiba bidez aurkezturiko lanetan izan ezik: "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2005". Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira uztailearen 8rako, arratsaldeko 13:00ak baino lehen. Informazio gehiagorako <http://elgoibar.org/> helbidean begiratu edo deitu 943 74 21 58 telefonora.

Altzolako San Juan jaiak ekainaren 23tik 26ra

Ekainaren 23an hasiko dira San Juan santuaren omenez ospatzen dituzten jaiak Altzolan. Arratsaldeko 19:00etan Meza Santua eta Salbea errezatuko dituzte auzotarrek eta santuari festetako zapia jarriko diote. Ondoren, San Juan arbola jarriko dute eleiz atarian. 22:30etik aurrera, berriz, San Juan sua piztuko dute

Deba ibaiak sortzen duen irlatxo batean. San Juan Egunean, ekainaren 24an, heriko portaletan San Juan adarrak jarri hasiko dira ospakizunak goizaldeko 06:00etan. Ondoren, 11:00etatik aurrera, prozesioa, trikitilariak eta pilota partida ikusgarriak iritsiko dira. Gavean "Aguirre" taldeak alaituko du dantzaldia.

Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel.: 943 74 16 76

ALBOKUAK inmobiliaria

ARREGITORRE
3 logela, egongela, komuna, sukaldea eta aseoa. 94m². Bizitzera sartzeko.

ERDIALDEAN
3 logela, egongela zabala, sukaldea,
2 komun, despentsa eta trastelekua. 116m². Bizitzera sartzeko moduan.

URASANDIN
4 logela, egongela, sukaldea, komuna

1 eta 2 LOGELAKO ETXE BERRIAK ERROSARIO

Errosario, 12 • Tel.: 943 74 06 73

AITOR OSORO MOTORZALEA

«Munduko 120 endurozale onenen artean egotea sari bat izan da»



Duela pare bat aste Munduko Enduro Txapelketaren 4. proba puntuagarria ospatu zen estrainekoz Euskal Herrian, Gernikan. Aitor Osorok (34 urte) bertan parte hartzeko gonbidapena jaso zuen eta han bizitakoak kontatu dizkigu.

👉 **Ohore bat Munduko Enduro Txapelketaren parte hartzea.**

Bai. Gernika Off Road (antolatzaileak) taldean lagun oso onak ditut eta parte hartzeko gonbidapena jaso nuen. Munduko 120 endurozale onenen alboan egotea sari bat izan da niretzat.

👉 **Zer mailatan lehiatu zinen?**

Enduro 2 delakoan, hau da, 250 zentimetro kubiko eta bi denborako motorretan. 100. postutik atzera geratu nintzen, hauen aurrean ez baitaukat zereginik. Hala eta guztiz, pozik bizitako esperientziarekin.

👉 **Ba al dago Enduroan dominatzaile argirik?**

Azken urteetan Juha Saminen finlandiarra nabarmendu da, 10 aldiz irabazi baitu Munduko Enduro Txapelketa. David Knight ingelesa dela haren oinordekoa esaten dute. Gernikako irteeran bere alboan egoteko zortea izan nuen.

👉 **Zenbat balio dezake profesional baten motorrak?**

Onenen motorrek 30.000 eurotik gora balio dute. Nirea seriekoa da eta 6.000 eurotik gora balio ditu. Profesional baten suspentsio urkilak bakarrik balio du nire motoak adina.

👉 **Zer motor daukazu?**

KTM 250 bat. Bi denborako motorra, 48 zaldiko potentzia eta 106 kiloko pisua ditu. 90 km/h. harrapa ditzake.

👉 **Zer prestaketa egin duzu?**

Kirol gogorra da eta fisikoki ondo prestatu behar da. Gernika 400 kilometro egin genituen asteburuan. Neguan mendian eta saltaka ibiltzen naiz.

👉 **Euskadiko Txapelketan parte hartzen duzu, ezta?**

Bai. Momentuz proba bakarria ospatu da Muskizen. Aurten 4 proba izango dira eta bat Elgoibarren ospatuko da irailean.

👉 **Gustuko zirkuitoak?**

Zirkuitu lokaztuetan nahiko ondo konpontzen naiz, baina teknikoki ez nahiz oso trebea. Abiadura handia hartzen den ibilbideak doazkit ondo, peralte asko dutenetan ibiltzen naiz gustura.

👉 **Noiztik motorren munduan?**

92an hasi nintzen motorrean ibiltzen eta karreretan ere berehalaxe. Belauneko arazo batzuen erruz 3 urtez lagata egon ostean, berotu eta berriekin nion. Txapelketetan ibiltzeko adinez pasatuta nagoela uste dut, baina asko engantxatzen du.

👉 **Zer da zuretzat motorra?**

Konpetitzeko aukera eman eta dedikazio asko eskatzen duen kirol bat. Eskerrak Ion Garajeak asko laguntzen didan mekanika arloan. Berari esker parte hartu nuen Gernikan. Babesleei ere asko zor diet: Iris kateak, Txusko Moto Kluba eta Magar automotismoak. Beraien laguntza gabe zaila litzateke enduroan aritzea.

«Profesional baten suspentsio urkilak balio du nire motorrak adina»

XXI. NAHASTE BORRASTE

Ekainaren 24an ospatuko da hiru kirol batzen dituen proba herrikoia



Bizikleta, antxintxika eta zakua uztartzen ditu Nahaste Borrastek.

Elgoibartarrok triatloia ulertzeko daukagun modu bitxia da Nahaste Borraste. Bizikletan (7 kilometro), zakua bizkarrean hartuta (400 m.) eta antxintxika (2 kilometro) egin beharko dute parte hartzaileek. Kimetz Elkarteak Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin antolatzen duen lasterketa ekainaren

24an ospatuko da. 16 urtetik gorakoentzako izango da eta Kimetz Elkartearen eman daiteke izena. Iaz 26 lagunek parte hartu zuten eta Martin Dominguezek lortzen duen 6. garaipena eskuratu zuen, 2.a jarraian. Dominguezek 19'35"ko denbora egin zuen eta 33'29"ko denbora azkenak.

Imanol Osoro Gipuzkoako txapelkunorde bolotan

Gipuzkoako Hiru Bolo Txapelketaren azken jardunaldia San Migelgo bolatokian ospatu zen joan zen zapatuan. Auzotar batek, Xabier Loiolak, irabazi zuen azken saioa, baina sailkapen nagusiko txapela Eibar aldera joan zen. Asola Berri taldeko Felix Gomez "Beltza" da Gipuzkoako txapelkun berria 10 jardunalditan 37 txirlo bota ostean. Imanol Osoro sanmigeldarra izan da txapelkunordea 34 txirlorekin eta hurrengo hirurak ere auzokideak ditu: Xabier Loiola, Unai Loiola eta Angel Ibarluzea, hurrenez hurren. Bikoterik onena Imanol eta Jabier Osorok osatu dute eta taldeka, berriz, San Migel A taldekoak izan dira nagusi. Alebin eta benjamin mailetan Julen Ibarluzea eta



Jon Ibarluzea sanmigeldarrak izan dira garaile. Parte hartzaile guztiek bazkari eder batekin ospatu zuten txapelketaren amaiera eta Andresi Anantzetak eta Jose Mari Arrillagak omenaldi beroa jaso zuten.

Tenis Txapelketa IMHko pistan

Berriki sortu den Basarte Tennis Elkarte Gastronomikoak benjamin eta alebin mailako tenislarientzako txapelketa antolatu du Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin. IMHko tenis pistan eta Olaizaga kiroldegian jokatuko dira partidak asteburu honetan. Zapatuan, hilaren 18an, goizeko 9:00etatik 21:00ak arte jokatuko dira partidak. Finalak domekan, hilaren 19an, jokatuko dira 13:30etatik aurrera. Antolatzaileek esan digutenez, 100 gaztetxok eman dute izena.



Elgoibartarrak lehen postuetan Arnoko 1. Mendi Lasterketan

Zegama-Aizkorri maratoian lortutako sasoi puntua aprobetxatuz, sailkapeneko lehen postuetan sailkatu ziren elgoibartarrak Arnoko 1. Mendi lasterketan. 95 atletek parte hartu zuten ia 25 kilometrotako proban eta Ionut Zinca, Errumaniar jatorriko gasteiztarra, izan zen irabazlea 1:36:53ko denborarekin. David Conde elgoibartarra 4. postuan sailkatu zen eta Xabier Bergaretxe 7. postuan iritsi zen Mutrikun zegoen helmugara 1:47:45 denborarekin. Jon Revert (1:52:05) eta Manuel Ramos (1:54:15) 9. eta 11. Postuetan sailkatu ziren.

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Arrasateko enpresak **kudeaketa-informatikako teknikaria** behar du. Erref. 162005005090
- Debako enpresak **prozesu-ingeniari teknikaria** behar du. Erref. 162005005755
- Debako enpresak **industriako mantentze lan eta konponketarako elektronikaria** behar du. Erref. 162005005757
- Donostiako enpresak **klinikako laguntzailea** behar du. Erref. 162005006129
- Oñatiko enpresak **iturgina** behar du. Erref. 162005004307
- Azkoitiko jateak **jangelarako kamareroa** behar du. Erref. 162005006008
- Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162005004536
- Arrasateko enpresak **promotorea** behar du. Erref. 162005005974
- Zarautzeko enpresak **pintorea** behar du. Erref. 162005005964
- Arrasateko enpresak **biltegiko arduraduna** behar du. Erref. 162005005906
- Zarautzeko enpresak **altzari edo zurezko lanen berritzailea** behar du. Erref. 162005005887
- Eibarko enpresak **saltokiko kutxazaina** behar du. Erref. 162005004815
- Arrasateko enpresak **etxez-etxeko laguntzailea** behar du. Erref. 162005005814
- Zumaiako enpresak **ostalaritzarako langilea** behar du. Erref. 162005005883

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

[LANA]

ESKAERA

- † Ingeles magisteritzako ikasleak klaseak emango lituzke, edo umeak zaindu. ☎ **636 62 31 85**
- † Mutilla edozein lan egiteko prest. ☎ **647 27 55 65**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **676 62 38 43**
- † Senar-emaztea lanerako prest. nagusiak edo haurrak zaindu, lorategi lanak, pintura... ☎ **676 85 30 28**
- † Emakumea etxeak garbitzeko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- † Mutilla eskaintzen da lan egiteko: gida baimena dut, urdaitegi-harakin ezagutza. ☎ **615 00 83 46**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **699 60 91 90**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **646 23 51 95**
- † Neska udan tabernan lan egin edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **636 91 65 56**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **600 28 27 93**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **639 88 20 04**
- † Soldadore titulatu lanerako prest. ☎ **943 53 17 45**

ESKAINITZA

- † Kamareroa behar da barran lan egiteko. ☎ **652 77 82 60**
- † Asteburuetarako sukaldari laguntzailea behar da Mendaroko jatetxerako. ☎ **943 03 01 50**
- † Tabernarako kamareroa behar da lanaldi osorako. ☎ **670 25 04 29**
- † Pertsona bat behar dut udan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. ☎ **687 114 707**
- † Euskaraz dakien emakume bat behar da edadeko pertsona bat zaintzeko, abuztuaren 15etik 31ra. ☎ **943-74 21 53**
- † Kotxeko karneta duen pertsona behar da banatzaile lanetarako. ☎ **636 99 69 90 (9:00-13:00/15:00-18:00)**
- † Sukaldari laguntzailea eta kamareroa behar dira. ☎ **943 12 12 62**
- † Debako Kresala Hotel-Jatetxeak terrazarako kamareroak behar ditu udarako. ☎ **943 60 80 52 (Axun)**
- † Asteburuetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da, uztaila, abuztua eta irailerako. ☎ **943 74 02 41**
- † Illeapaintzailea behar da egun erdiz lan egiteko. ☎ **943 74 18 64**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai San Frantzisko kalean. 86m². Egongela, sukaldia, komuna, bi logela, trasteroa, galeria, bistak. 150.000 euro. ☎ **666 04 27 10**
- † Etxea salgai San Roken. Sukaldia, 3 logela, egongela, 2 komun, trasteroa, bi balkoi eta ganbara. Garajea aukeratu. ☎ **943 74 88 53**
- † Pisua salgai Pedro Muguruzan. Egoera onean, bizitzera sartzeko moduan. 90m². 3 logela, egongela, sukaldia, komuna ganbara. ☎ **943 74 33 68**
- † Etxea salgai Marbellan. Atiko duplexa, amueblatuta, garajearekin. 2 gela, binugela eta komuna, egongela, sukaldia. 14m²ko terraza, igerilekua, eta lorategi komunitarioa. Hondartzatik gertu. ☎ **699 17 98 72**
- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m². Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukalea, lehortegeia eta garajea. ☎ **687 23 58 39**
- † Etxe berritua salgai Sorluzen. Komunak eta sukaldia amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ **615 77 99 20**
- † Etxea salgai Urasandin. ☎ **666 718 263 (Igor)**
- † Pisua salgai Pedro Muguruzan. Eguzkitsua eta bistekin. ☎ **617 979860 (15:30etik aurrera)**
- † Etxea salgai Mendaron. 77m² Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora, eguzkitsua eta ganbarekin. ☎ **659 71 57 22**

ALOKAIRUA

- † 6 lagunentzako bungalow-a alokatzen dut Alcoceberren (Las Fuentes). Uztaila eta iraila. Igerilekuarekin, itsasotik 50metrora. ☎ **680 18 39 07**
- † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Bateles hondartza ondoan. Guztiz jantzita. Iraila, urria eta ondorengoak. ☎ **680 44 26 68**
- † Apartamentua alokatzen da Saloun, Novelty eraikuntzan. Guztiz jantzita. Aire egokitua, igerilekua eta garajea. Terraza handia, harrera zerbitzua 24 ordu. ☎ **629 98 98 99**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **615 713 440**
- † Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **647 27 55 65**
- † Pisua alokatzen da Salamancan ikasleentzat. ☎ **943 74 29 31**
- † Pisukidea behar da etxea osatzeko. ☎ **615 76 55 15**
- † Apartamentua alokatzen da Mallorkan. ☎ **645 82 93 45 (Aitor)**
- † Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Zentroan. ☎ **650 55 70 77**

[SALEROSKETAK]

- † Ezkon-soinekoa eta osagarriak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ **943 08 00 81/615 72 64 30**
- † Ford Transit markako furgoneta salgai. 2000 euro. ☎ **607 46 80 14**
- † Boxer furgoneta salgai. Gora altxatzen den sabaia. 2 urte eta 5 hilabeterako garantia. Ekonomikoa. ☎ **639 31 33 29 (Maite)**
- † Opel Vectra 1.8 16v. salgai. 8 urte, ITV 2007ra arte. 110.000km. 4.200 euro. ☎ **699 81 25 66**
- † Mexikar estiloko saloia salgai. Armairuak, mahaiak, taberna, bi sofa... ☎ **943 19 80 62**
- † Seat Leon Sport 110 cv. salgai. 4 urte, 100.000km. Salmenta premiazkoa, prezio oso onean. CD kargadorea, klimatizatadorea, 4 airbag, portaeskia... ☎ **645 007 465 (Iraki)**

[GARAJEAK]

- † Garaje itxia alokatzen da San Roken. 34 m². ☎ **943 74 17 02**
- † Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Bi autorentzako, irekia. 60 euro. ☎ **699 81 25 66**
- † Garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 07 26 (21:00-22:00)**
- † Garaje itxia salgai Madalako etxe berritan. 28m². ☎ **646 50 28 66**
- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**

[PARTIKULARRAK]

- † 6 urteko umeari klase partikularak emateko pertsona behar da. ☎ **615 78 71 18**

[BESTERIK]

- † Gozotegia traspasatzen da Madala ondoan. Prezio onean. ☎ **943 74 28 75**
- † Ustez kotxe gainean utzi eta San Frantziskotik errepidera bidean giltzak galdu nituen. Giltzero marroi batean zuden. ☎ **685 70 10 25**

[ZORIONAK]



† Zorionak **Ainhoa**, ekainaren 13an 6 urte bete zenuelako. Familiakoen, bereziki, ahizpa Nagore eta Elgoibarko guztien partez.



† Zorionak **Andoni**, Julene, Olaia eta familiako guztien partez.



† Zorionak **Pedro** hilaren 19an lehenengo urtebetetzea ospatuko duzulako. Gurasoen, Inigo eta Maria Jesusen partez.



† Zorionak **Carlota** ekainaren 13an urte bat bete zenuelako. Familiakoen partez.



† Zorionak **Eneko** zure 5. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Iraitz arreba-ren partez.



† Zorionak **Laura** igandean 8 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Ioneren partez.



† Zorionak **Txapeldun** gaur, hilak 17, 10 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, amamaren partez.



† Zorionak **Maria** zure 6. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Andrearen partez.



† Kosta zaio, baina heldu da eguna. Zorionak bihotz bihotzez eta ondo ondo pasa, etxeko guztien partez.



† Zorionak **Ander** igandean, 6 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki anaia Gorkaren partez. Oso ondo pasau!



† 25 urte, 30 lagun eta 3. gauza, zorionak **rubiol**

† Zorionak **Ekipto** zuen 2. kopa irabazteagatik. Segi horrela txapeldunak!

† Aurten ere eskerrik zintzoenak eman nahi dizkio-gu **Ana Ansolari** urte guztian erakutsi duen dedikazio eta maitasunagatik. Musika Eskolako ikasleak.

† Zorionak **Tia** guatxi guatxixangoenari! Zure ilobek izugarri maite zaitugu. Trikititriki ra! Izeba Maite, muxu handi bat eta oso ondo pasa!



† Zorionak **tio eta tia** lehengusu txikia Alex ekartzeagatik.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

III DUEA
TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA
HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo ikasleekin
LUMEN ETA NERABEEN ARAZOAK
ANTSJETATEA
DEPRESIOA
ESTRESA
ELIKADURA ARAZOAK
AUTOESTIMA
MIRIAM MAJKA 675 61 78 55 NARRIAN IZURTZA
AINHOA BARRIO 615 70 37 25 UZTAYE BARRIO-2.

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE LAN FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
HUGOTERRO ASEGURUAK



[OKINDEGIA]



19 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
17	Yudego	Yudego	IBÁÑEZ
18	Bidasolo	Zabaleta	Rekalde, 1 Soraluze.
19	Zabaleta	Zabaleta	Tel: 943 75 16 38
20	Etzeberria (Erosario)	Etzeberria	FERNANDEZ
21	Ibañez	Ibañez	Herriko enparantza 4, Garagarza.
22	Bidasolo	Bidasolo	Tel: 943 75 61 42
23	Etzeberria (Santa Ana)	Etzeberria	ZABALETA
24	Fernandez	Fernandez	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	BARREN astekaria 943 74 41 12
Larrialdiak 943 46 11 11	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Planning-a 943 74 29 50	Kiroldegia 943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Liburutegia 943 74 35 25
Gurutze Gorria 943 74 38 64	Musika Eskola 943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Mintxeta 943 74 43 15
Odol Emaileak 943 74 39 36	Parrokia 943 74 08 42
	Postetxea 943 74 15 47
	Gazte Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEAK
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharen Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	IKASTETXEAK
Mendaroko Udala 943 03 32 82	Haur Eskola 943 74 21 41
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	HHI (EPA) 943 74 08 80
Udaletxea 943 74 10 50	Herri Eskola 943 74 08 79
Udaltzaingoa 943 74 13 94	I.M.H. 943 74 41 32
Debemen 943 74 40 67	Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
	•Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
GARRAIOAK	Ikastola 943 74 44 41
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31
PESA (Eibar) 902 10 12 10	
Taxi geltokia 943 74 08 98	
Bizkaibus 902 222 265	



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiko. Azkena 21:55.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[17 BARIXAKUA]

18:30 LAGUNAK PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK

Plaza Handian

U.Ruiz - A. Astigarraga

I. Txurruka - F. Conde

Antolatzailea: Lagunak Pilota

Eskola

19:00 C.D. ELGOIBARREN

URTEKO BATZAR OROKORRA

Kultur Etxean

19:00 EGUR ARTE

TAILERRAREN ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Kultur Etxean

Ekainaren 30era arte

Antolatzailea: Egur Arte Tailerra

22:00 BIDEO-FORUM-A

Filmea: "Cleopatra"

Hizlaria:

Eskame Larrinaga

Antolatzailea: Haizea Emakume

Taldea

22:30 "DO" TALDEAREN

KONTZERTUA

"Sotoko Hotsak"

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Sinuose

Sarrera: 3 euro

[18 ZAPATUA]

9:00 TENIS TXAPELKETA

IMHko tenis pistan

Antolatzailea: Basarte Tenis Elkarte

Gastronomikoa

11:00 EHNA EGITEKO AUKERA

Plaza Handian

Antolatzailea: Einbiou

22:00 TRISKA DANTZA

TALDEAREN KURTZO BUKAERAKO

DANTZA JAIALDIA

Olaizaga Kiroldegian

Antolatzailea: Triska Dantza Taldea

[19 DOMEKIA]

12:00 SAN MIGELDARREN EGUNEKO MEZA NAGUSIA

Aiastia auzoan
Ondoren, Murkaikupe bilgunearen inaugurazioa

Salda eta txorizoa banatuko dira

12:30 SAN MIGELGO

AUZOTARREN ARTEKO PARTIDUA

Morkaikupe frontoian

14:30 BAZKARIA SAN MIGELEN

Ondoren, dantzaldia Gardokirekin

[23 EGUENA]

14:30 ALTZOLAKO SAN JUAN JAIEN HASIERA

Txapliguak eta kanpai jotzea

19:00 MEZA SANTUA ETA SALBEA

Santuari festetako zapia jartzea

20:00 SAN JUAN ARBOLA

JARTZEA

22:30 SAN JUAN SUA ERREKAN

23:00 "AGUIRRE" TALDEAK

ALAITURIKO DANTZALDIA

[21 MARTITZENA]

19:00 "IDAZMAKINAK"

LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Sariak banatzen: Alex Sardui
(Gatibu musika taldeko abeslaria)

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Elgoibarko Izarrako

GAZT gazte taldea

[24 BARIXAKUA]

06:00 ALTZOLAKO SAN JUAN JAIAK

Herriko portaletan San Juan adarrak jartzea

11:00 PROZESIOA ETA MEZA

Elgoibarko Parrokiko Koroak lagunduta

12:00 TRIKITILARIAK

18:30 PILOTA PARTIDAK

19:00 NAHASTE BORRASTE

LASTERKETA HERRIKOIA

Irteera: Plaza Handitik

16 urteko gorakoentzat

Izen ematea eta antolatzailea:

Kimetz Elkarteak

20:00 USTEKABE HANDIA

22:00 "AGUIRRE" TALDEAK

ALAITUTAKO DANTZALDIA

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«La señal 2 (The Ring)»

17, barixakua: 22:15,
18, zapatua: 19:30-22:15
19, domekia: 19:30-22:15
20, astelehena: 22:15
«In Good Company»
17, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Madagascar»

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 17:00-19:30-22:15
19, domekia: 17:00-19:30-22:15
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30-22:15
22, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Tapas»

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 17:00-19:30-22:15
19, domekia: 17:00-19:30-22:15
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30-22:15
22, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«La Señal 2 (The Ring)»



Zuzendaria: Hideo Nakata.

Antzezleak: Naomi Watts, Simon Baker, David Dorfman

Sei hilabete pasa dira Rachel Keller (Naomi Watts) eta bere semeak Seattle-en bizi zituzten gertakari beldurgarri eta harrigarri haietatik. Ama semeek bizilekuz aldatzea erabaki dute dena errazago ahaztuko dutelakoan. Usteak erdi ustel izango dira beste behingoz, ordea, eta iritsi diren herri berrian hilketa batek alarma guztiak piztuko ditu, bideo zinta batekin izan baitu zerikusia. Rachel berehala konturatuko da Samanthak mendeku goseoa duela.

Atzera begira



1964. urteko erretratu zahar hau **herritar batek** laga digu. Argazkian ageri den emakume talde honek, Modesta Iriondoren despedida ospatu zuen egun honetan. ikusten den bezala, dotore-dotore jantzi ziren denak, eta seguruenik oso ondo pasatuko zuten. Gogora ditzagun zeintzuk diren talde honetan ageri direnak:
Goian, ezkerretik eskumara: **Pilar Iribarren, Antonia, Lutxi Bastida, Ana Mari Igartua, Maite Beristain, Mari Kamen Barandiaran eta Mari Kamen Elustondo.**
Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Marivi Agueron eta Rosario Urain.**
Hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Marisol Etxaniz, Pepi Etxaniz, Mari Etxaniz, Antonia Iriondo, Modesta Iriondo, Miren Iriondo, Jaione Iriondo eta Arantza Arrieta.**



I. URTEURRENA

2004ko ekainaren 19an, 52 urte zituela hil zen
Jose Luis Soraluze Lizundiaren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, ekainak 18, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

2004ko ekainaren 19an, 52 urte zituela hil zen
Jose Luis Soraluze Lizundia.
"Baikor" kuadrilakoak inoiz ez zaitugu abaztuko



Iraileko **EGA** azterketa

VIAJA CON
AEK!

Eskolak
uztailean
edo **irailean**

Langabetuek, gurasoek eta ikasleek
matrikula erdia,
udalaren laguntzaz

**DESTINO
EUSKARA**

Izena eman
ekainaren 28a aurretik



aek
Euskaltegia

Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net



Judith

EDERGINTZA

**Emakumea zein gizonezkoa izan,
zatoz nigana zure irudia hobetzera!**




Masajeak
Gorputzeko tratamenduak
Aurpegiko tratamenduak
Depilazioak
Makilajea
Betileen tintea eta
permanentea



San Frantzisko, 2 (FARMAPRAIZ) • Tel.: 667 74 21 18

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador
Santa Clara



Neinor 

NEINOR **Azkoitia**
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.